



Euskal pultsulari onenak lehiatuko dira larunbatean Zizurkilen

SEI KIDE ▶ Euskadiko XXXIII. Halterofilia Txapelketa jokatuko da; Danena-Olaederrako sei kide ariko dira ▶ 4



Batis Kortajarena, Marian Lazkano alkatea eta Ainhoa Larrea teknikaria txapelketako kartelarekin. I. GARCIA



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Madrilen arte munduan bere lekutxo aurkitzera

IBARRA ▶ Ingrid Buchwaldek Artista Berrien Lehiaketa irabazi du; Madrilen «aukera eta kompetentzia gehiago» omen dago ▶ 6

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KARMELE** ileapaindegian 3 orraztualdi beren tratamendu bereziarekin zozketatuko ditugu



San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

ZEZENAK ▶

Sanjoanetako feria aurkeztu dute

Conde, Morante de la Puebla eta Cayetano ariko dira ekainaren 26an

JOXEMI SAIZAR

Herenegun aurkeztu zuten Udaleko, Sarot eta Toropasion enpresetako ordezkariak aurtengo sanjoanetako zezen feria. Guztira hiru jaialdi izango dira: errektoriariak ekainaren 24an, zaldi gaineko zezenketa 25ean eta zezenketa mistoa 26an.

1992tik Udala «zezenen aldeko apustu berezia» egiten ari dela aipatu zuen Jokin Bildarratz alkateak aurkezpenean. «Feria handia egiteko esfortzua» egin dutela azaldu

zuen Antonio Picamillsek, aurreko zezen-plazaren ardura hiru urterako hartu duen Sarot enpresako ordezkaria.

Lehen ekitaldia «Euskal Herriaren berria» den ikuskizuna izango dela aurreratu zuen Toropasion enpresako ordezkariak: Zezen-errektoriari I. Lehiaketa, Espainia eta Frantziako gaur egungo espezialistak elkartuz. «Magia, ausardia, arriskua, emozioa» biltzen dituen ikuskizuna dela erantsi zuen. Dehesa del Guadarrama ganadu etxeko zezenkoekin ariko dira. San Joan egunean

19:00etan izango da eta 15 euroko sarrera bakarria jarri dute.

Hilaren 25ean Fermin Bohorquez, Sergio Galan eta Ivan Magro ariko dira zaldiaren gainean El Sierro ganadu etxeko zezenak toreatzen. Lehen biak famatuak direla eta Madrilgo San Isidro ferian «oso ondo» aritu direla gogoratu zuen enpresagizonak.

Bukatzeko, 26koa izango da zezenketa nagusia. Javier Conde eta Jose Antonio Morante de la Puebla toreatzaileak eta Cayetano Rivera Ordoñez nobleiroa Nuñez del Cuvillo ganadu



Udala eta enpresako ordezkariak herenegungo aurkezpenean. J. SAIZAR

etxeko zezen eta zekorrek ariko dira. Lehenengoaz «magiako», bigarrenaz «sakontasun handikoa» eta hirugarrenaz «mediatikoa» dela esan zuen Picamillsek, hiruk bil-tzea «oso zaila» dela erantsiz.

«Plaza betetzeko lanean» ari direla esan zuen, «denen eskura dauden prezioak» jarri. Abonoak gaur eta bihar eros daitezke zezen-plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

KULTURA ▶

Sanjoanetako ekitaldiak ere bai, tartean

Hilaren 18an hasiko dira herriko jaiak; aurretik eta ondoren ere bada zer egin

IRATXE ETXEBESTE

Egun gutxi batzuk baino ez dira geratzen herriko jai nagusienak iristeko, eta tolosarrak irrikaz dira honezkeroko festa giroaz gozatzeko. Hala eta guztiz ere, sanjoanen aurretik askotariko ekitaldiak egiteko modua izango dute haurrek, gazteek eta helduek herriko hainbat gunetan, hilero bezala, Udaleko Kultur departamendutik ekitaldi eskaintza zabala egin dutelako ekaineko. San Joan jaien osterako ere anitza da egin duten erakusketen, kontzertuen eta abarren eskaintza. Hona hemen ekitaldi horiek, banan-banan zehaztuta:

ANTZERKIA

'La madre coraje'. Suripanta Teatroaren eskutik. La madre coraje antzezlan izango da hi-

laren 25ean, larunbaterekin, Leidor aretoan. 22:30ean hasiko da ikuskizuna.

AURKEZPENA

Liburua. Juan Garmendiari buruzko liburuaren aurkezpena egingo dute hilaren 22an, asteazkenarekin, udaletxean. 20:00etan hasiko da.

AZOKA

Sanjoanetakoak. Hilaren 18an, datorren larunbatean, izango da urteroko sanjoanetako azoka berezia herriko hainbat gunetan: produktuen erakusketa eta salmenta izango da, Udaleko Enplegu sailak antolatuta. Musika Eskolako ikasleen bandak eta Giro Arte dultzaina taldeak alaituko dute giroa. Goizean hasi eta eguerdian amaituko da azoka.

Ibilgailu klasikoak. Ibilgailu Klasiko XI. Nazioarteko Erakusketa izango da asteburuan, larunbatean eta igandean, egun osoan Ferialekuan.

DANTZA

Izaskun Arriola. Izaskun Arriola dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du hilaren 15ean, as-



Hilaren 18an hasiko dira sanjoanak eta 26an bukatuko. L. MONTES

teazkenarekin, Leidor aretoan. Bi saio izango dira egun horretan: 20:30ean hasita lehena, eta 22:30ean bigarrena.

Udal tailerra. Udal dantza tailerretako ikasleek ikasturte bukaerako ikuskizuna eskainiko dute hilaren 19an, igandearrekin, Leidor aretoan. 12:00etan hasiko da emanaldia.

DIRU BILKETA

Minbiziaren aurka. Minbiziaren aurkako kuestazioa egingo dute hilaren 18an, larunbaterekin, herrian zehar.

GAZTE TOPALEKUA

Kultur Etxean. Asteburuero, larunbatetan eta igandetan, Kultur Etxeko areto nagusian dago zabalik Gazte Topalekua, 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. 16:30etik 20:30era bitartean dira, eta irekia da parte hartu nahi duenarentzat. Askotariko ekitaldiak egiten dituzte.

ERAKUSKETAK

'Calcuta ondoan'. Aranburu Jauregian dago ikusgai erakusketa maiatzaz geroztik, eta hilaren 11 bitarte ikusi ahal izango da, astelehenean eta jaiegunetan izan ezik, egunero, 17:30etik 20:30era.

Dick Rekalde. Aranburu Jauregian izango da Dick Rekalderen pintura erakusketa uztailearen 9a arte. Arratsaldero ikus daitezke, astelehenean eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

Eskulanak. Hilaren 17an hasi, eta uztailearen 2ra arte, urte osoan Kultur Etxeko tailerretan aritu diren ikasleen erakusketa izango da ikusgai Aranburu Jauregian, arratsaldero, astelehenean eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

JAIAK

Sanjoanak. Herriko festa nagusiak, San Joan jaiak, hilaren

18an hasiko dira, larunbaterekin, eta 26an amaitu, igandez.

MUSIKA

Tolosako Orfeoia. Tolosako Orfeoien sanjoanetako kontzertu berezia hilaren 19an, igandearrekin, izango da, Leidor zinema aretoan, 19:30etik aurrera.

Isidro Larrañaga. Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du hilaren 26an, igandez, Leidor zinema aretoan 12:30ean.

Bonberenean. Frantziako Selam eta Inoren Ero Ni taldeek etzi, eta Peiremnas eta Leihotika taldeek larunbatean kontzertuak eskainiko dituzte. 22:30ean hasiko dira biak.

Musika Eskolako ikasleak. Tolosako Musika Eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute hilaren 16an, ostegunez, eta hilaren 20an, astelehenez, Musika Eskolako areto nagusian. Koroa eta akordeoi orkestrak ariko dira lehen egunean, 19:30etik aurrera. Hilaren 20an, berriz, haizezko instrumentuak jotzen dituzten ikasleek eskainiko dute emanaldia, 20:15ean hasita.

PAKO EGUNA

Pakon. Larunbatean izango da urtero Tolosako Udaleko Gazteria sailak eta Gazte Guneak elkarlanean antolatzen duten Pako Eguna. Ekitaldi gehienak Pakon bertan, Jurasiko parkean, izango dira: txapelketak, karaokea, bazkaria... askotariko ekitaldiak egiteko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren haurrek eta gaztetxoek goizetik iluntzera.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MERKATARITZA ▶



Yurre Peñagarikano Alde Zaharreko zinegotzia —lehen ezkerretik— eta zenbait merkatar, atzo. LEIRE MONTES

Alde Zaharra-Dendak elkarte berriaren lehen kanpaina, prest

Txartelak banatu eta globoan ibiltzeko aukera eskainiko diete bezeroei, hilaren 18an; sariak ere zozketatuko dituzte

LEIRE MONTES

Alde Zaharreko saltokietan erosketak bultzatu eta merkataritza sustatu nahian ari dira buru-belarri lanean guneko merkatariek. Alde Zaharra-Dendak elkarte berria bildu dira orain, eta prest dute beren lehendabiziko promozioa sanjoanetarako.

Globo aerostatikoan ibiltzeko aukera eskainiko diete merkatariek berezoei. Horretarako, honakoa egin behar dute erosleek: «Gure dendetan erosten duenean txartel bat ematen diogu bezeroari. Hala, sei txartel biltzen dituenean, globoan ibiltzeko aukera izango du».

Horretarako, hilaren 18an, 19:00etatik aurrera, Euskal Herria plazara agertu besterik ez dute erosleek, eta sei txartel horiek aurkeztu, han jarriko baitute globoa. Jende kopurua mugatua da, baina —100-120 lagun inguruz— aurreikusiten dute antolatzaileek—, eta jendea iristen den heinean igoko da aerostatikora. 20 metroko altuera hartuko du, baina beti ere lurrera lotuta. «Zerbait desberdina eta ikusgarria egin nahi genuen, eta kontent gaude, oraingoz jendeak oso ondo erantzun baitu».

Globoan ibiltzea lortzen ez dutenek sariren bat jasotzeko aukera izango dutela gogoratu dute merkatariek, txartel bakoitzean norberaren datuak idatziz gero zenbait zozketatan parte hartuko baitu bezeroak: «Afari bat lau lagunentzat, bi afari bi lagunentzat, eta Alde Zaharreko tabernetan kontsumitzeko 10 euroko 30 txartel zozketatuko ditugu».

Kanpaina martxan da, eta hi-

Alde Zaharra, bizirik

Duela urte eta erdi ingurutik ari dira elkarlanean Alde Zaharreko merkatariek. Baina, orain, beren egoerari «beste izaera bat eman nahi izan diote»: hala, Alde Zaharra-Dendak elkarte sortu dute. «Alde Zaharra merkataritza ikuspuntutik sustatzea» du helburu elkarteak, eta antolatutako ekintzekin ere «gunea dinamizatu» nahi dute. Kale bakoitzeko arduradunak dituzte eta, horrela, «denon parte-hartzea eta elkarren arteko komunikazioa errazago ziurtatzen dira». ◀

laren 18ra arte iraungo du. Esan bezala, egun horretan jarriko dute globoa, 19:00etatik 22:00etara. Amaieran ekingo diote zozketari, Euskal Herria plazan bertan, jendaurrean.

160 merkatarri promozioan

160 merkatarik egin dute bat Alde Zaharra-Dendak elkartearen promozio honetan. Harrituta eta gustura daude merkatariek: «Ez genuen pentsatzen hainbeste lagun elkartuko genetik. Oso pozik gaude».

Bestalde, Yurre Peñagarikano zinegotzia Alde Zaharreko batzorde mistoaren sorreraz mintzatu zen: «Alde Zaharra garatzeko gaietan bertan inplikatu dauden alderdi guztien artean —bizilagunak, dendariak eta ostalariak— adostasuna bilatzeko jaio zen. Gunearen eraberritzean ezinbestekoa baita denon parte-hartzea». Era horretan, Udala («Alde Zaharraren onurako proposatutako ekimen guztiak kontuan hartuko eta babestuko») dituela azpimarratu zuen. Alde Zaharra-Dendak elkarteak zori-erantzuko zozketak, merkataritza dinamizatzeko ekintza hauek, positiboak izateaz gain, beharrezkoak direlako».

BATZARRA ▶

Ezohiko batzarra, bihar, Oargi elkarteak deituta

Presazko ezohiko batzarra deitu ditu Oargi mendi elkarteak bere bazkide guztiak. Bihar, hilaren 9a, izango da hitzordu garrantzitsua, elkartearen bertan, arratsaldeko zortzietan. Bazkide guztien parte-hartzea eskatu du Oargiren zuzendaritza taldeak: «Arren, azaltzeko eskatzen dizuegu, garrantzi handiko gaia landuko baitugu».

BATZARRA ▶

Tolosa CF-ren ezohiko batzarrerako deia

Tolosa CF-k ezohiko batzarra deitu ditu bazkideak. Hilaren 16a, osteguna, izango da, 19:30ean lehen deialdian, eta 20:00etan bigarrenan, Antonio Maria Labaien kultur etxean. Aurreko aktaren irakurketa, lehendakari-tzarako hautagaien aurkezpena edo, bakarria egonez gero, hautatzea izango da joratu beharrekoak.

EUSKARA ▶



Xabier Bildarratz langileak irabazi du Panelfisako lehiaketa. HITZA

Panelfisa-n, euskararen alde lanean

Erronka berriari ekin dio aurten Panelfisa enpresak: Euskara Planaren bosgarren urtean sartu dira, eta 2005a izango da, hain zuzen ere, aholkularitzaren laguntzik gabe ariko diren urtea. «Euskarari lan munduan bultzada iraunkorra emateko asmotan lanean jarraitzeko gogo biziz ari gara gure egunerokotasunean», diote, kontent. «Planaren azken lau urteotan egindako lana gogorarazteko eta parte-hartzea bultzatzeko asmotan», lehiaketa antolatu zuten Panelfisakoek apirillean: zazpi astetan hainbat galdera erantzun behar zituzten, eta parte-hartzaile guztien artean «afari eder bat» zozketatu dute. Xabi Bildarratz mantentzen dute langilearentzat izan da saria. «Zorionak hari eta gure esker ona lehiakide guztiei».

ADINEKOAK ▶

Harizpen, bazkide zaharrenei omenaldia

Urtero legez, aurten ere elkarteak bazkiderik zaharrenei omenaldia egingo du. Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak. Larunbaterako, hain zuzen ere, antolatu ditu ospakizuneko ekitaldiak: meza 11:30ean Jesusen Zerbitzarien elizatzon, mokadutxoak elkartearen ondoren, eta bazkaria 14:30ean Fronton jate-txean. Sei lagun omenaldia dituzte: Elías del Villar, Jose Leunda, Leonides Garcia, Mari Cruz Egaña, Hilarion Balerdi eta Maria Patrocino Gonzalez.

ASIA ▶

Txilipurdika ludoteka antolatu du Galtzaundik

Galtzaundi Euskara Taldeak aurten ere ludoteka antolatu du 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat: Txilipurdika ludoteka. Uztailaren 1etik 29ra izango da, egunero 09:30etik 13:30era. Jolasak, eskulanak, irteerak eta bestelakoak izango dituzte aukeran umek. Astelehenean, hilaren 13a, zabalduko dute izena emateko epea, eta hilaren 23a arte izango da horretarako aukera, elkartearen egoitzan, 10:00etatik 14:00etara (Nafarroa etorbidea, 6. 943 65 50 04).

VILLABONA ▶

Gaztetxeak
egun dagoen
lokala utzi
behar du

I. GARCIA

Villabonako Udalak Onddo gazte asanbladari jakinarazi dio Flemingo ikastetxe zaharrean egun duen Gaztetxea utzi behar dutela hilaren erdirako, eraikina bota eta etxebizitzak egin behar direlako. Onddotik azaldu dutenez, «hilabete luzeetan Udalarekin batera iretenbide bat bilatzeko hainbat bilera egin eta gero, Udalak ez digu irtenbide bideragarririk eskaini». Udaletxeko lokal bat eskaini die Udalak eta Gaztetxeok erabiliko dute. «Lokala oso txikia da. Erabiliko dugu, baina ez gaztetxe bezala, materiala gordetzeko tokirik ez dugulako baiziki». Onddotik azaldu dutenez kalean egingo dituzte hemendik aurrera ekitaldiak eta hilaren 18rako manifestazioa deitu dute «etxe duin baten alde».

Villabonako Udaletik HITZARI adierazi diotenez, «gazte asanblada lokalik gabe izatea ez da gure asmoa. Eta hori garbi gelditzen da udaletxean bertan leku bat utzi diogulako». Herrian lokalen arazoa badagoela dio Udalak eta ez dela Gaztetxeari bakarrik ukitzen dion gai bat. «Beraientzako lokal bat lortzen saiatu gara. Sacem-eko pabilioietan Udalak duen lekuan beraientzako lokal bat jartzen saiatu ginen, eta ondo dakite, beraiek ere izan zirelako bileretan, baina pabilioietan dauden enpresek ez zeuden ados egitasmo horrekin», gaineratu dute Udaletik.

**TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

Agurrak. Zure agurrak paperezko edizioan ikustez gain, Interneten ere ikusteko aukera duzu, mundu guztiari zabalik.



ZIZURKIL ▶ KIROLA

Euskal pultsulari onenak lehian izango dira Intxaur frontoian

Euskadiko XXXIII. Halterofilia Txapelketa jokatu da larunbatean; Danena-Olaederrako sei pultsulari ariko dira



Batis Kortajarena, Marian Lazkano eta Ainhoa Larrea, txapelketaren aurkezpenean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Euskadiko Halterofilia Txapelketa jokatu da larunbatean, Intxaur pilotalekuan, 16:00-etan hasita. Atzo egindako aurkezpenean Marian Lazkano Zi-

zurkilgo alkateak, Batis Kortajarena txapelketaren antolatzailerak eta Danena-Olaederrako entrenatzaileak, eta Ainhoa Larrea teknikariak parte hartu zuten.

Txapelketa nagusia izango

da, hau da, euskal pultsulari onenak lehiatuko dira. Bakarka eta Federaziozka egingo dira lehiaketak. Aurten XXXIII. edizioa beteko duen honetan, berritasun bat ere izango da, Iparraldeko ordezkariak ba-

tek parte hartuko baitu. Orain arte, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako federazioek hartu dute parte.

Gizonezkoetan guztira 40 pultsularik hartuko dute parte, federazio bakoitzetik zortzi. Gipuzkoatik parte hartuko dutenetik sei Danena-Olaederrakoa dira: Jon Tecedor, Igor Sasiain, Jon Sasiain, Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez eta Gorka Lopez. Zortzikotea osatzeko beste biak Jaizki Mendizabal zarauztarra eta Jon Aranburu irundarra izango dira. Jon Tecedorren parte-hartzea ez da ziurra. Aste honetan egin behar duen proba batzuen ondoren erabakiko du pultsulari bikainak parte hartuko duen ala ez.

Emakumezkoetan guztira sei pultsularik hartuko dute parte, horien artean, Lurdes Gorostegi zizurkildarra. Denbora batez halterofilia utzi ondoren, berriz ekin dio.

Bakarka, taldeka eta federazioa banatuko dira sariak. Maila ezberdinak izango dira pisuaren arabera. Taldekako lehian, pultsulari guztiek lortutako postuek emandako puntuaketa izaten da kontuan. Federazioen arteko lehian Sincier izeneko taularen bidez erabakiko da —nazioartean erabiltzen den taula bera—. Horrela, pultsularien pisuari koefiziente bat dagokio eta hori erabiltzen da altxatu duen pisuaz biderkatzeko. Horrela federazio bakoitzaren bost puntuaketa onenak erabiltzen dira lehiaketa erabakitzeke.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Organo emaileak lortu eta sensibilizatzeko mahaia jarri zuten atzo

EAEk tasa handiena badu ere, emaileen beharra azaldu dute transplantatu eta gaixoek

I. GARCIA

Organo Emaileen Nazioarteko Eguna da gaur eta horregatik Atcore-ko (Euskadiko Bihotz eta Birika Gaixo eta Transplantatuen elkarteko) kideak emaileak egiteko mahaia jarri zuten atzo Villabonako Berdura plazan. Bi bihotzeko transplantatu, Jose Mari Lete tolosarra eta Jesus Portillo ibartarra, eta bihotzeko gaixotsuna duen Pako Ezeiza billabonatarra zeuden herritarrei organo emaile egiteko eskatzen. Jose

Mari Letek HITZARI azaldu diotenez, «horrelako ekimen baten helburua jendea sensibilizatzeta da eta emaileak lortzea. EAEk proportzioan mundu mailako emaile kopuru handiena badu ere, egungo beharrak oraindik ez dira betetzen».

Jesus Portillok badu zer eskertu organo emaileei. Orain ia urtebete bihotza transplantatu zioten: «Nire bihotzak ez zuen behar bezala funtzionatzen eta horregatik giltzurdinekin ezin zuten bere lana egin eta beraz, ezin nuen txisa egin. Egoerak



Organo emaile berriak datuak betetzen atzo jarrirako mahaia. I. GARCIA

okerrera egin zuen eta Santanderreko Valdecillas ospitalera eraman ninduten». Han zegoela bihotzeko indartsu bat eman zion, «ez nintzela aurrera aterako esan zidan suspertu ninduenak». Ondoren, hiltzorian zegoela eta makinek bizia eusten ziotela, transplantea egin zioten. Egun, bizitza normala egiten du, «baina bere mugekin: esfortzu handirik egin bage, garbi jan...».

Bere aldetik, Pako Ezeizak gaixoko izan behar duen jarrerabarmendu du: «Desfibri-ladorea jarri didate eta horrek bihotza %20 funtzionatzenetik %35era funtzionatzera baliatu du. Aldaketa izan da, baina hala ere ezin dut gauza asko egin, mugatua da bizitza. Errealitatea asko aldatzen da eta gaixoaren jarrerak asko esan nahi du hori guztia eraman ahal izateko».

IBARRA ▶ KIROLA

Belabietako eskaintzak eta eskaerak gora

Erabiltzaile kopurua bai eta ikastaro eskaintza ere hazi egin dira 2004ean

NOELIA LATABURU

Orain bi urte Ibarra Belabietako kiroldegia berriro zenetik erabiltzaile kopurua eta ikastaroen eskaintza nabarmen egin du gora.

Horrela, 500etik 1.183ra igo dira harpidedunak. Instalakuntzen hobekuntzak, halaber, ikastaro ezberdin gehiago antolatu ahal izatea suposatu du: helduei zuzendutakoak —gimnastika, yoga, pilates, mantentze fisiko, aerobik, espin-

ning—, haurrei zuzendurikoak —gimnastika erritmikoa, zesta punta, urpeko jarduerak, tenisa, kirol alternatiboak— eta kirol talde, elkarte eta klubek antolatutako jarduerak —pilota, areto futbola, sokatira taldeak, hockey taldea—.

Bestalde, bestelako jarduerak ere antolatzen dira Belabietan: areto futboleko 24 orduak, Hauspoa urteko festa, Euskadiko Arku-tiro Txapelketa, bertsolarien saioa eta aerobik maratonia, esaterako.

BELABIETA KIROLDEGIA ▶

Gaia	Kopurua
Instalazioen erabilera	
Harpidedunak	33.750
Taldeak	34.375
Tolosako bartelaz harpidetuak	5.700
GUZTIRA	73.825
Balantze ekonomikoa	
Gastuak	215.403,58
Sarrerak	124.234,51
Gastu eta sarreraren arteko aldea	-91.169,17
Erabiltzaile piramide	
16 urtetik gorako harpidedunak	1.038
16 urtez beherako harpidedunak	145
Harpidedunak emakumezkoak	497
Harpidedunak gizonezkoak	686
Ibarra harpidedunak	715
Tolosako harpidedunak	312
Beste udalerrietako harpidedunak	156
GUZTIRA	1.183

IBARRA ▶

Gaur 'Peru, eguzkiaren atarira bidaia' ikus-entzunekoak

Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalek eskainiko dute hitzaldia

N. LATABURU

Atzo hasi eta ostirala bitarte, *Munduan zehar...* bidaien inguruko astea izango da. Gaur *Peru, eguzkiaren atarira bidaia* ikus-entzunekoak argazki-bilduma «oso zaindua eta txukuna» izango da ikusgai. Andeetako quena eta zanpoña tresnen doinu leunek girotua. Urabamba-Vilcanota inken ibai sakratuaren ibilguru barrena Peruko geografia eremu oparoak kanonaz, oinez, kamioiez eta tren zeharkatuz hango paisaiei, jendeari eta historiari buruz Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalek ikusi, sentitu eta ikasi zutena erakusten du emanaldiak.

2003ko abuztuan egindako diaporama honek Peruko bost eremu ekologikotan barrena egindako bidaia «dilu-ragarriaren» irudiak erakusten ditu, lasai bidaiatzeko filosofiarri jarraituz egindako bidaia baten irudiak. Ordubeteko emanaldi honetan, herritarrak, paisaiak (iraungipena), kultura, historia eta pasadizoak (sinkronizatuta) ikusi eta entzun ahal izango dira, Andeetako quena eta zanpoña musika tresnen doinu gozoko lagun.

Bihar, berriz, Patagoniari buruzko ikus-entzunekoak eskainiko du Jose Ramon Agirre Marronek.

LEABURU ▶ GIZARTEA



Kostaldeko gaztetxoek ohiko bisita urteko sasoi honetan

Erredakzioa ▶ Urtero legez, uda gerturatzekoan, asko dira Donostialdetik Leaburura hurbiltzen diren gaztetxoak egun pasa polita igarotzeko helburuz. Argazkian, Donostiako eskolako ikasleak Leaburuko plazan jolasean, atzo eguneko bisitan. HITZA

IBARRA ▶ KIROLA



Euskadiko Txapelketan «ondo»

Erredakzioa ▶ Aurreko asteburuan Gasteizen Gimnastika Erritmikako Euskadiko Txapelketa izan da eta Belabietako gimnastak «emaitza onak» lortu dituzte: Izaro Esnaola 7. postua alebinetan, Garazi Egiguren 5.a infantiletan eta Maider Urruzolak 8.a. HITZA

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20480 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 609 308 994

Abaltzisketa. Sei etxe abiki, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainu du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.
Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.
Asteasu. Alokairuan edo salgai 1.050 m²-ko pabilioia, bi solairuko, 250 m²-ko tarteko solairua, era guztietako osagarri eta hobekuntzerekin.
Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan. Prestatua.
Berastegi. 100 m²-ko bi solairuko

borda salgai, berritzeko. 75.000 m²-ko lursailarekin. 35 eta 50 urteko pinu alerzeekin.
Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza behe solairuan, berritua.
Bidanía. Bi familiarentzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.
Donostia. Sagues. 70 m²-ko duplexa, berritua, igogailua, Groseko hondartzara ikuspegiak.
Errioxa. Hormilla, Naxeratik 3 kilometrotara, 11 baitel adosatuta lorategi eta igerilekuarekin urbanizazioan (151.000 euro).

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldea. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.
Lasarte. 65 m² erabilgarriak dituen etxebizitza salgai Oztaran kalean, hirugarren solairuan. Kanpoaldea.
Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak eraiki berriak salgai, 350 m²-tik hasita.
Naxera. 3 etxe abikituren salmenta eta promozioa, bost altuerekin, igogailua, bokoa eta terraza handiekin.
Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin izkina egiten, 110 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldea, eguzkitsua, igogailua, berrikuntza behar du.
Tolosa. Iurre, 98 m²-ko etxebizitza,

kanpoaldea, eguzkitsua, igogailua, trastelekua eta garaje marra.
Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratx propioarekin.
Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldea, berritzeko.
Tolosa. Pablo Gorosabalen, duplexa estreinatzeko.
Tolosa. Letbuga kalean, 105 m²-ko etxebizitza, berritzeko.
Tolosa. Apataerretka, bi altuerara dauden bi etxebizitzaren berritzea, garaje eta lursailarekin.
Urretxu. 780 m²-ko pabilioia, 300 m²-ko tarteko solairua. Guztia ipinita, erakusketaz zabal.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

ELA irabazle Osakidetzan
eginiko hauteskundeetan

Tolosan ere ELA sindikatuak lortu du
gehiengoa botuen % 37,6arekin

ERREDAKZIOA

Maiatzaren 26an burutu ziren
Osakidetza hauteskunde
sindikalak. 289 ordezkari au-

keratu dituzte. Tolosan, zen-
tsua 183koa bazen ere, 101
langileek eman zuten bozka.
ELAk lortu du gehiengoa %
37,6koarekin. Bigarren SATSE
% 20,8rekin, hirugarren SME
izan da % 16,8koarekin, LAB
laugarren % 9,4rekin, CCOO
bosgarren % 5,9rekin eta UGT
eta SAE azkenik % 1,9 eta %
2arekin hurrenez hurren. To-
losako Lehen mailako arreta
Tolosa, Andoain, Lizartza, Be-
rastegi, Alegia, Ibarra, Irura,
Anoeta, Bidegoian, Amezketza,
Legorreta eta Asteasuko lan-
gileek osatu dute.

TOLOSAKO L.M.A. ▶

Sindikatu	botuak
ELA	38
LAB	10
CCOO	6
UGT	2
SATSE	21
SME	17
SAE	2

IBARRA ▶

Imerso-ko
bidaietan
parte hartzeko
epea zabalik

ERREDAKZIOA

Dagoeneko zabaldu da Im-
erso-ko bidaietan parte
hartzeko eskaerak egiteko
epea. 2005/2006 denboral-
dian opor egitasmoetan par-
te hartzeko eskaera egin
nahi duenak, inprimakiak
udaletxean jaso ahaliko ditu.
Eskaerak ekainaren 30a bai-
no lehen bidali beharko dira
10140 posta-kutxa, 28.080
Madril, helbidera.

IBARRA ▶

Bi atxilotu
Apatia-Errekan
lapurreta
egiteagatik

ERREDAKZIOA

Bi pertsona atxilotu zituzten
atzo goizaldean Ibarra-
Apatia-Erreka industriagun-
ean lapurreta egiten saia-
tzeagatik. Ertzaintzak jakina-
razi duenez. A.J. A.U. 42 urte-
koa eta M.C.V. 38 urtekoa
obretako barrakoietakoa kan-
datuak indarrez irekita atze-
man zituen ertzainek goizeko
4:00etan. Atxilotuak epaika-
taren zain geratzen dira.

INGRID BUCHWALD ▶ ARTISTA

«Madrilen aukera gehiago,
baina kompetentzia
handiagoa dugu artistok»

Artista Berrien Lehiaketan saria irabazi berri du ibartarrak;
egun, arte munduan bere lekutxo aurkitu nahian dabil



JON URBE/ARGAZKI PRESS

I.TERRADILLOS

Ingrid Buchwald Arte Ederre-
tan lizentziaturiko 25 urteko
ibartarra da. Madrilen du bizi-
lekua egun, bere neurriko ar-
tistentzat «aukera gehiago iza-
ten delako». Donostian Gipuz-
koarrentzat bi urtean behin
egin ohi den Artista Berrien
Lehiaketan parte hartu eta ba-
natzen diren hiru sarietako bat
irabazi berri du. Gaztea da
oraindik, hasi berria, eta arte-
an etorkizuna handia duela
erakusteko irrikaz dago.

**Lehiaketan aurkeztu ziren
200 obretatik saria irabazi
duzu. Zer sentitzen da?**
Ilusio eta poz handia. Obrarako
2 sari ematen dituzte eta aur-
kezten diren proiektuetarako
beste bat. Nire kasuan aurke-
ztu nuen obragatik eman didate
7.500 euroko saria AB-1592-Y-
30 JAN lanagatik.

**Izen berezia du. Zergatik izen
hori eta nolako da lana?**
Kasualitatea izan da dena. Ber-
linera joateko hegazkina hartu
behar nuen eta Mallorcako ai-
reportuan 4 orduz egon behar
izan nuen zain. Nekeak jota lo
egiteko gogoa izaten duzu as-
kotan aireportuetan, zure leku-
txo pribatua sortzen saiatzen
zara, baina jendea eta soinu
asko izaten denez zaila izaten

da. Kontraste horretan dago oi-
narritua nire lana. Argazkiak
atera nituen eta lotan zegoen
pertsona bat erabili nuen nire
animaziozko lanerako. Pertso-
na hori marraztu eta fotograma
desberdinak egin nituen. Ho-
rrela, 2 minutu inguruko zikloa
da nire lana, non atzealde zuri
egiten ohi den Artista Berrien
Lehiaketan parte hartu eta ba-
natzen diren hiru sarietako bat
irabazi berri du. Gaztea da
oraindik, hasi berria, eta arte-
an etorkizuna handia duela
erakusteko irrikaz dago.

**Saria irabazteak zure obra
ezagutarazteko balio izan al
du?**

Bai, eta horri esker makina bat
elkarrizketa egin dizkidate. Ho-
rretaz gain, Koldo Mitxelena
daude ikusgai lan sarituak uz-
tailaren 2a bitarte, beraz berta-
ratzen diren guztiek ezagutu
dezakete.

**Lehendabiziko aldia da zure
lana lehiaketa batean aurkez-
ten duzula?**

Aurkeztu izan naiz lehiaketa
gehiagotan, baina estreinako
aldia izan zen niretzat Donos-
tiko Artista Berrien Lehiake-
tan.

**Bilbon Arte Ederrak amaitu
ondoren Madrileran joan zinen
ikasten jarraitzen. Ikasketak
amaituta bertan jarraitzen
duzu. Zergatik?**

Arte y nuevas tecnologías ize-
neko masterra egitera joan

nintzen Madrileran eta behin
hura amaituta bertan geratzea
erabaki nuen. Madrilen aukera
gehiago dago artistentzat. Es-
kaintza gehiago dago, erakus-
ketak egiteko aukera gehiago
dago eta lehiaketa gehiago egi-
ten dira. Zure lana ezagutaraz-
teko modurik onenetakoa
lehiaketetan aurkeztu eta ira-
baztea izaten da. Hala ere, era
berean, aukera gehiago dago-
en bezala kompetentzia ere
handiagoa da Madrilen Euskal
Herrian baino eta alde horretatik
nahiko parekatu dagoela
esan daiteke.

Zer lan egin dituzu bertan?

Kafetegi eta antzeko lekuetan
erakusketak jarri ahal izan di-
tut. Diru-zorro eta poltsak egi-
ten ere jardun dut.

**Nolakoak dira zure erakuske-
tetako margoak?**

Ez dute lan sarituaren antzik.
Tolosatik ekarritako oihalean
margotzen ditut. Komiki edo
manga pertsonaia modukoak
marrazten ditut. Margo tragiko-
ak edo drama ikutukoak dira,
erdi komertzialak eta erdi ar-
tistikoak. Bizitza aurrera ateraz-
tea dut helburu lan hauetan.
Gehiago gustatuko litzaidake,
ordea, beste era bateko lanak
aurkeztea. Saria jaso zuen ani-
maziozko lana bezalakoak
gehiago atsegin ditut.

Titulazio Ofizialak
ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
SARRERA: D.B.H./ HSAOL BATXILERGOA EDO ANTZEKOAK

ceinpro
DISEÑU ETA KREAZIO-AHALMENEAN
OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

DISEÑU ETA KREAZIO-AHALMEN SAILA

- KREATIBITATE AZTERKETA
- KOLORE, MARRAZKETA ETA OSAKETA
- PUBLIZITATE DISEÑUA ETA MARKETING
- IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA
- IKUSMEN KOMUNIKAZIOA

TEKNOLOGIA BERRIETAKO SAILA

- LOGOTIPO DISEÑUA
- IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA
- MAKETAGINTZA ETA PRODUKZIO EDITORIALA
- INTERNET, WEB DISEÑUA & MULTIMEDIA
- ARGAZKILARITZA DIGITALA

2005-2006 KURTISOA

Hezik Piselekua 99
20008 DONOSTIA
Gipuzkoa
Tel. 943 310875
Fax 943 310875

www.ceinpro.es

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Leitzako ikastetxeetako ikasleak saritu dituzte berriz

Narratibakoa, Jose Maria Satrustegi Etnografiakoa eta Pedro Diez de Ulzurrun Deklamazio eta Irakurketako beste bi sari eskuratu berri dituzte, denera

JAIONE ASTIBIA

Zoriontzeko modukoa da, berriz ere, Erleta nahiz Amazabal ikastetxeetako ikasleek Nafarroako ikastetxeen artean egindako lehiaketetan parte hartu eta, gainera, sariak eskuratu izana, beste behin ere.

Aurten, duela urte mordsoka egiten duten bezala, Erleta eskolatik eta Amazabal institutu-tik ere, hainbat lan aurkeztu zituzten lehen aitaturtako lehiaketa honetako atal desberdinetara eta guztira, Nafarroa osotik 400 lan aurkeztu zituzten, lau sari jaso dituzte. Horrela, banaka igorritako lanen artean, narratiba atalean eta 6. mailako ikasleen artean, Malen Lizarragak jaso zuen lehen saria. Neskato honek berak atzokoan HIZARI adierazi zionez, *Etorkizuneko bidaia* ipuinarekin eskuratu zuen hori.

Eta, beste banakakoa, baina jada Batxilergoko ikasleen mailan eta Jose Maria Satrustegi Etnografiako Lehiaketan kasu honetan, Joanes Lizarraga Amazabal Institutuko ikasleak, aurreko sari-dunaren anaia, eskuratu zuen. Aurten-



Erletako ikasleak, sariak eskutan zituztela, ostiralean. SAGRARIO LASARTE

goa, bosgarren aldia du sari hau ematen diotela. *Atabaleroak* lana aurkeztu omen zuen: «Fermin Azpirozi egin nion elkarriketa eta grabatu, atabala jotzen bera aritu izan delako urte askoan eta lehengo ohiturak eta kontatu zizkidan», argitu zuen sarituak, «eta gero,

esan zituen moduan transkribatu», nabarmenduz. Horrekin batera, «hiztegi bat ere erantsi nion, hemengo euskararen hiztekin», halaxe adierazi zuen. Baina egindako lan honetan, beste atal bat ere landu zuen: «Leitzan izandako txistulari eta atabaleroen zerranda egin



Joanes Lizarraga. J. ASTIBIA.

nuen, eta bakoitzaren ibilerak kontatu». Lan mardula, beraz, gazte honek egindakoa. Etnografia du gustuko eta hari horri tiraka dabil.

Eta Pedro Diez de Ulzurrun Irakurketa eta Deklamazio Lehiaketan, berriz, beste bi sari jaso zituzten leitzarrek: 4. mailako Berritsu ikasle taldeak, Patziku Perurena leitzarraren *Errege erreginak* liburutik hartutako hainbat pasarteren irakurketako grabazioekin; 6. mailako Orbela taldeak, iaz eskolako festarako prestatu zuten *Amona* antzezlaneko partateekin.

LEITZA ▶ KULTURA

'Plazaola' aldizkaria egiteko tenorea ere aillatu da: idatzi eta marraztu

Azalak nahiz idatziak aurkezteko epea zabalik dago jada, San Joan eguna, 24a arte

J. ASTIBIA

Urtero bezala, ekainean ohikoa denez, eta udako festa usaina ere ekarriarazi nahiz edo, *Plazaola* aldizkaria prestatze lanetan ari dira Aurrera kirol elkartean.

Bi deialdi egin dituzte. Bata aldizkariako azalaren lehiaketari dagokiona: Leitzako festak gai hartuta, parte-hartzaile bakoitzak, Leitzan bizi direnek parte har dezakete, solilik, oharrik dionez, bi marrazki aurkez-

ditzakete gehienez, lau koloretakoa, alegia, kolore guztiak erabil daitezke, eta 50 x 65 cm-koa gehienez. Lehiaketan bi sail egingen omen dituzte, bestalde. Horrela, 16 urtez behikoenetan, barnean argitaratuko dira hauek, derrigorrezkoa dute Plazaola, Leitzako aldizkaria eta 27. zenbakia hiru adierazpen horiek lanetan jartzea, «bakoitzak nahi duen eran», ziotenez; 16 urtez goikoek, berriz, azalerako izanzen direnak, Leitzan 2005, Tiburtzio Donea-

ren Pestak eta 27. zenbakia dira beharrezko.

Aurkeztutako lanek ez dute sinadurarik izan behar, baina, atzekaldean izenburu edo izengoiti bat jarri eta deitura bereko kartazal batean egilearen datuak sartuta, Aurrera elkarteke egoitza utzi behar dira. Lanak aurkezteko epea hilaren 24ean bukatzen da eta bi egunera, 26, igandean ikusgai jarriko omen dituzte egoitzan bertan, ikusleek beren iritzia

emanez, bakoitzeko irabazlea zein den erabakitzen parte hartuz. Lanak, Aurreraren esku geldituko direla jakinarazi dute.

Bide batez, idazlanak aurkezteko epea ere zabalik dagoela eman dute aditzera, 24a arte honetan ere, idatziak izen abizenekin bidali behar direla ohartaraziz, nahiz eta ezizenez argitaratu omen daitezkeen. Lanak Aurrerako buzoian uztea nahikoa omen da.

iragarki laburrak ▶

LANA

Ettxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Ordutegia: astelehenerdik ostiralera 16:00etatik 20:00etara. 600 euro eta gizarte segurantz. Erreferentziak guztiz beharrezkoak dira. Bidali 240 posta kutxara. 20.400 Tolosa.

Tabernaria. Tolosaldeko neska bat udan tabernan lan egiteko prest dago. Esperientziaduna.

Deitu 650 66 20 35 zenbakira.

Sukaldaria. Astebukaeratarako eta opporen ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933ra.

LEITZA ▶

Kontsumitzaile bulegorako, hitzordua aurrez eskatu

Hamabostean behin, hilean bitan etortzen jarraituko du Iratxeko teknikariak

J. ASTIBIA

Iratxe kontsumitzaileen bulegoko teknikariak hamabostero etortzen jarraituko du, baina egunez aldatu dute zerbitzua.

Horrela, hilabeteko lehen-dabiziko eta hirugarren asteazkenetan etorriko da Iratxeko teknikoa, udaletxera, batzorde gelara zehazki. Zerbitzua 10:00etatik 13:00etara egonen omen da zabalik. Baina, etorri nahi duenak, 012ra deitu eta aurrez hitzordua eskatzea beharrezkoa omen duela iragarri dute bando batez. Hurrengo txanda, hilaren 15ean du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Herri borondatearen aldeko festen batzordeak jaien balorazioa egiteko bilera udaletxean 19:00etan.

Ibarra. 79ko Uztak Koadrilen Eguna antolatzeko bilera deitu du gaur 20:00etan Sendi Ekintzan.

Tolosa. Oargi mendi elkarteak bazkideen ez ohiko asanblada egingo du bihar 20:00etan egoitzan bertan. Garrantzi handiko gaia denez, ahalik eta jende gehiena joatea komeni da.

Tolosa. XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketa antolatu du Arsenal kirol elkarteak 17tik 26ra, 1995-96 eta 1993-94 urteetan jaiotako Tolosaldeko eta Leitzaldeko neska-mutilentzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24).

Tolosa. Sanjoanetako Koadrilen Eguneko bazkarirako baxtelak ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 11:30etik 13:30era egongo dira salgai Orbela tabernan 18 eurotan. Informazio gehiago: 943 65 23 84 (Eli).

Tolosa. Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT), Titirijai barruan, txobxongilo antzerkia haurrentzat idazlan lehiaketa antolatu du. Irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira CITen (Emeterio Arrese 2). 4.000 euroko saria dago eta obra eszenaratu egingo da.

Villabona. Dr. Fleming ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, Haur Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurrek urtean zehar prestatutako antzerki obra eskainiko dute Gurea zinema aretoan 18:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Ollarreaga, A. Korreo 2.
943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre (FM 107)

11:00-14:00. Joxe Landa, Aitor Arozenari elkarrizketa, Zortziko Aldrebesa, lehiaketak, diskoak...
19:00. Errepikapekana.
22:00. Gaztesareko Tas Tas irrati libreko Iraulki uhinak saioa.


▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Blues doinuez blai

TOLOSA ▶ «Kalitate handiko» musika taldeekin «gustura» agertu da antolaketa, «ez hainbeste jendearen erantzunarekin», batez ere plaza Berriko saioetan



Pyreneos jazz orkestra Leidor zineman aritu zen bere emanaldia eskaintzen. JOXEMI SAIZAR



Big Mamak eta J.Pau Cumellasek giro ona jarri zuten Frontonen. J.S.



Maila handia erakutsi zuen The Blues Blaster'sek plaza Berrian. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Pasatu da Tolosand blues jaialdiaren lehen edizioa eta antolatzaileak «gustura» agertu dira «Tolosara etorri diren musika taldeen mailarekin, ez hainbeste jendearen erantzunarekin».

Fronton kafetegiko emanaldietan lortu da giro eta goxotasunik handiena, lehendik ere frogatuta zuen musika moeta honetarako egokitasuna konfirmatuz. «Iaz izandako Big Mamak eta Joan Pau Cumellasek bildu zuten jende gehiena, ezagunak zirelako hemen», azaldu du Iñigo Martin antolatzaileak. The Blues Blaster'sen «kalitate handia» aipatu du bereziki Martinek.

Kalitatea ikusita, jaialdiarekin «aurrera jarraitzeko asmoa» azaldu dute udal ordezkariak. «kaleko emanaldietan jende gehiago biltzeko formula berriak bilatuz denon artean». Cazorlako (Jaen, Espainia) jaialdia ere oso jende gutxirekin hasi zen, baina orain mila-lagun joaten omen da.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!